

PROZESUAREN ONDORIOEN LABURPENA

# GAINZA PARTE HARTZE KOMUNITARIOZ HIRIGINTZARAKO GOGOETA EGITEKO PROZESUA

2021ko Martxo



## AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
PROZESUAREN ONDORIOAK .....	4
BASERRIAK.....	4
ERAIKINEN EGITURA.....	7
UDALETXE ZAHARRA ETA APAIZ ETXEA.....	8
ALTZAGARATERAKO BIDEA.....	12
KASKOAREN PEATONALIZAZIOA ETA APARKALEKUA.....	15
HERRITARREN BESTELAKO ESKAERAK:.....	17
HAURREN ESKAERAK .....	19
UDALAREN KONPROMISO OROKORRA: jarraipena.....	20
HERRITARREN KONPROMESUA.....	21

## SARRERA

“Gaintza parte hartze komunitarioz hirigintzako gogoeta egiteko prozesua” Gaintzako Udalaren nahi batetik sortu zen, hain zuzen, herritarrekin elkarlanean, etorkizuneko hirigintza bultzatuko zuen markoa eta lan ildoak identifikatzea. Modu honetan, Udalak egin beharreko hirigintzako plan orokorraren ildo nagusiak herritarrekin batera zehazteko.

Aldi berean, parte hartzearen bitartez herritarren artean Gaintzaren etorkizunaren inguruan gogoeta egiteko ere baliatu nahi zen prozesua, modu honetan herritarren arteko kohesio eta komunitatea indartzeko.

Helburu honekin Farapi Koop. Elkartek, Udalarekin elkarlanean, Gaintzaren neurriko prozesu bat diseinatu eta burutu du 2020ko abendutik 2021eko martxora bitarte. Eta honako dokumentu hau ibilbide horren emaitza eta ondorioak jasotzen dituen laburpena da.

## PROZESUAREN ONDORIOAK

Ondorio nagusi gisa azpimarratu dezakegu **Gaintzarrak haien herriaren etorkizunarekin konprometituta** daudela. Partaide kopurua eta partaide guztien parte hartze aktiboa ikusirik **haien herria hobetzeko proposamenak egiteko eta horiek lantzeko gogotsu** daudela nabaritu da. Aldi berean, proiektuak hasieratik ere izan duen helburuari jarraikiz, zeharka bada ere, **herritarren arteko kohesioa eta komunitate izaera ere landu dira**. Gai zailetan, iritzi eta posizio ezberdinak, eta sarri bateraezinak, egon direnean ere **giro ona eta errespetua nagusitu dira**, guztion hitza entzun eta errespetatuz.

Prozesuan zehar **Gaintzako herrian hobetzeko proposamen eta arlo mordoak landu dira**. Prozesu honen helburu nagusia **hirigintzako gaiak** jorratzea izanik, **lanketa sakonak gai hauetara** bideratu dira:

- **Baserriak**
- **Eraikinen egitura**
- **Udaletxe Zaharra eta Apaiz-etxea**
- **Altzagaraterako bidea**
- **Herrigunearen peatonalizazioa eta aparkalekuak**

Hala ere, gai nagusi hauez gain, **partaideen beste proposamen guztien jasoketa** ere egin da, “Herritarren bestelako gaiak” izenpeko azpi-atalean bildu direnak zerrenda gisa.

**Haurren eskaerak** trataera berezia merezi dutela eta, atal honetan **haien proposamenekin azpi-atal bat** ere egin da.

Gauzak horrela, atal honetan, **prozesuan sakonean landutako gai hauek azpi-atalka** bildu dira. Gai bakoitzean **hitz egindakoak, egondako eztabaidak**, azken saioan **gai horrekiko partaideak nola posizionatu diren**, eta gai horren aurrean aurrera begira **Udalak hartzen dituen konpromisoak** jasoko direlarik.

Amaitzeko, **Udalak gai hauen jarraipenerako herritarrei egindako proposamena** jasotzen da, baita **herritarrei eskatzen zaien konpromisoa** ere.

## BASERRIAK

---

Baserrien gaia hasieratik egon da prozesu honekin landu nahi ziren gaien artean. **Kezka eta interes handiko gaia da Udal zein herritarrentzat**, eta prozesuan ere hala ikusi da.

Gai honen inguruan hitz egitean, **hiru elementu nagusitan** egon da **adostasuna**:

- **Baserri huts asko** daude **eta arduratzen gaituen zerbait** da.
- Baserri hauei **irtenbide emateko gogo**a dago eta irtenbide bat emateko modua bilatu beharko da.
- **Segregazioa aukera egokitzat** ikusten da eta **egun dena baino malguagoa izan behar** da.

Hemen **gai honi lotuta** egin diren eta adostasuna izan duten **proposamenenak**:

- **Baserri hutsen eta haien dimentsioen inbentarioa egin**. Posible balitz, baita familiaren egoera potentziala ere, hau da, zenbat seme-alaba dauden bereizteko beharrak ikusteko: “etxebizitza-unitateen” kopurua.
- **Lehentasuna ematea baserriak birgaitzeari** (errehabilitazioari), egiturak horretarako aukera ematen duenean, hau da, egitura arriskuan ez dagoenean. Egituraren zati bat egoera onean badago ere, zati horretan berridazketa lehenetsiko da.
- Baserriaren **egitura konprometitua dagoen kasuetan, baserria osorik bota ahal izatea eta eraikin berria egin ahal izatea**.
- Bi kasuetan (errehabilitazio eta berria egitea) **baserriak daukan tamaina mantendu beharko** da. Hau da, tamaina hau ez handitzea.
- **Altuerari** dagokionez adostasuna dago **“ganbaren erabilgarritasunak hobetzeko” altuera gehiago lantzeko aukera ematea, baina pisu berri bat sartzeko aukera ez ematea**.
- **Segregazioei dagokionez, posizio ezberdinak** egon dira:
  - Batzuk, **gehienez ere baserri batetik 3 etxebizitza arte** egiteko aukeraren alde azaldu dira.
  - Beste batzuei ordea, gutxi iruditu zaie, eta **muga bakarra tamaina izatea** nahi dute. Hau da, **Bizitza bakoitza 50m2 baino txikiago ez izatea** izatea muga bakarra (50m2 paretik gabe kalkulatu).
- **Eraikuntza osagarri**ei dagokionez:
  - Taldearen ustez, gaur egungo bizitza desberdina da, eta **eraikuntza guztiak (baserriak barne) bizi-baldintzei erantzuten diete edo erantzun behar** diete.
  - Bistan denez, bizimoduaren ondorioz, **beharrezkoa da baserriek espazio/eraikin osagarriak izatea**, eta, ezin badira baserrian bertan sartu, **prozesu horiek erraztu egin behar** dira, adibidez, garajeak.
  - Nekazaritzaren legeak txabolei mugatuta daudenez, **Udalak irizpide malguak erabili behar** ditu “bizitza errazteko” (eta honek esan nahi du ez bakarri tresnak

gordetzeko tokia izatea), gaur egun okupatuta dauden baserrietarako, balizko zaharberritze edo eraikuntza berrietarako.

- **Lurrei dagokionez:**
  - Eztabaida izan da, baserrien lurra ezin dela etxebizitzaren kopuruaren arabera banatu. **Legearen arabera baserri bat lur batekin lotuta dago eta ez du inportatzen etxebizitzetan banatuta dagoen, lotutako lurra “bat” izango da.** Horrek **ez du oztopatzen etxebizitza bakoitzak “bere zatia” edukitzea.** Baina **ezin da modu autonomoa (baserrietik banatuta) desagregazioa egin.**
  - Hori kontuan izanda, adostasuna egon da **hektarea bat arte baserri bakoitzak daukan lurra gutxitzeko aukera ematean** (hau da, 10.000 m<sup>2</sup> izatea segregazioa baserri bakoitzarentzat).
- **Akaberekin gutxi gora behera “Gaintzako baserrien irudia” mantentzea** ikusten da. **Ez modu oso zorrotzean, baina edozein gauza egiteko aukera ez ematea** erabaki da. Esaterako harrizko txapatua, teilatuak teilarenak...
- **Hesi, zerriei** dagokionez, ondo ikusten da **bidetik metro bat** izatea. Zalantza handienak sortzen ditu, izan ere, pertzepzioa da hori ez dela errespetatzen (bidetik 0,5m ere ez da errespetatzen). **Materialei dagokionez libre** uztea.
- **Beste gaien inguruan** honakoa adostu da:
  - **Hotela, jatetxe, aterpetxeak edo beste erabilerak baserrietan aukera ematea** mugarik gabe.
  - **Igerileku pribatua egiteko baimena ematea**, ur publiko edota jendearen erabilera eragiten ez badio.
  - **Eguzki-instalazioekin baimena ematea tendentzia** egon da, baina balioztatu beharko da (bereziki produkzioarako) adostasuna konfirmatzeko.

Gai honetan **eztabaidagai nagusia segregazioa gauzatzeko orduan ezarriko den irizpidea** izan da, hau da, **segregazioa arautzeko orduan muga non jarri.** Hauek izan dira **bi posizioak:**

- A) Batzuk, **muga bakarra etxebizitza tamaina** izatea, hau da, etxebizitza bakoitza 50m<sup>2</sup> baina txikiago ez izatea (50m<sup>2</sup> paretik gabe kalkulatu) eta ez ezartzea muga bezala etxebizitza kopuru zehatzik.
- B) Beste batzuk, ordea, **etxebizitza kopuruari muga jartzea** nahi dute eta **baserri batetik gehienez ere 3 etxebizitza** egiten uztearen alde daude.

Partaide guztiak gaiaren inguruan **posizionatu direnean iritzia oso poloraizatuta** dagoela ikusi da. Hau izan baita ateratako emaitza: **17 pertsona A) aukeraren alde**, mugarik ez ezartzearen

alde, **eta 17 pertsona B) aukeraren alde**, kopuruan muga jartzearen alde, gehienez ere 3 etxebizitza baimentzea.

Beraz, gai honetan, herritarren artean **iritzi bateratu bat ez** dago. Horregatik, **irtenbide egokiena erdibideko zerbait** litzatekela uste da.

Honez gain, eztabaidan asko **azpimarratu den beste irizpide bat izan da segregazio horrekin negozioa egitea galarazteko nahia**. Hau nola erregulatu zaila da, hala ere, Udalak kontuan eduki beharko luke.

### **UDALAREN KONPROMISOAK:**

**Segregazioaren** gaiari dagokionez Udalak **hurrengo urratsak** emango ditu:

- **Baserrien inbentarioa egitea**, Gaintzako baserrien benetako errealitate zein den ezagutzeko.
- Inbentario honen gainean eta **datu zehatzekin Udalak baloratu** ahal izango du segregazioari dagokionez **zein posizio hartuko** duen. Hala ere, herritarren iritzia banatuta dagoela ikusita, **aukera egokiena erdibideko zerbait** litzake. Adibidez:
  - o **Orokorrean gehienez ere 3 etxebizitza** baimentzea.
  - o Baserri batetik **3 etxebizitza baino gehiago egin ahal izateko tamaina “nahiko handia” duten kasuetan soilik.**
- Alor honetan **legeak ezartzen dituen mugak aukera hau baldintzatu dezakela** kontuan izanda, **Udalaren konpromisoa** da araudia aztertzea dauden aukerak ikusteko, eta horren baitan, **legearen barruan, herritarren nahira gehien hurbiltzen dena egitea.**
- Araudiak jartzen dituen mugak eta bertan Udalak aurkitzen dituen aukerak **herritarrekin partekatzea.**

Beste proposamenekin:

- Jada **aplikatzen has daitezkeenak aplikatzen** hasi.
- **HAPO edo arau subsidiarioan sartu behar direnak HAPOa egiten denean bertan txertatu.**

### **ERAIKINEN EGITURA**

---

Eraikinaren egituraren gaia **ez da oso sakonean landu** den gai bat izan. Berbagai nagusia **eraikin berrietarako muga edo baldintzetan zorrotasun maila** izan da. **Batzuen iritziz**, altuera izan ezik

beste **baldintza** guztiak **malguak** izan beharko ziren, **beste batzuentzat** ordea, **estetika pixka bat zaintzea garrantzitsua** da eta estilo aldetik armoniotsua izaten saiatzea.

Horregatik, 3. Saioan bi aukera hauen artean **posizionatzeko eskatu zitzaizen partaideei**:

A) **Eraikuntzen tamaina eta akaberekin “gutxi gora behera Gaintzako irudia” mantentzea.** Altuerari dagokionez dagoena mantentzea. Akaberei dagokionez, ez modu oso zorrotzean, baina **edozein gauza egiteko aukera ez ematea** (Esaterako zementu eta ladrillu murriztu, teilatuak teilarenak... )

B) Eraikuntzen tamaina eta akaberekin **libre uztea.** Partzelen tamainen arabera altuera eta akaberak libreak.

Partaideen artean **iritzia nahiko banatuta** dago. **19 pertsona azaldu dira A) aukeraren alde**, hau da, “gutxi gora behera Gaintzako irudia” zaintzearen alde, **B) aukeraren alde**, mugarik ez jartzearen alde, ordea **15 pertsona** azaldu dira.

Posizio bat, ez beste, gailentzen ez bada ere, nabari da **irudia zaintzearen aldekoak gehixeago** direla. Horregatik, **bi posizioen arteko aukera bat litzake egokiena**, hau da, **estetika zaintzeko muga batzuk jartzea**, partaideen erdiak baino gehiago honen alde baitaude, **baina muga hauek ez izatea oso zorrotzak**, guztiz libre uztearen aldekoak ere asko dira eta.

#### **UDALAREN KONPROMISOAK:**

Eraikinen egiturari dagokionez, prozesuan ateratakoa jarraikiz, **Udalaren konpromisoa** hau izango da:

- **Erdibideko aukera hori topatzea**, hau da, eraikinei Gaintzaren irudia mantentzeko muga eta baldintza batzuk ezartzea, baina muga hauek ez izatea oso zorrotzak, **eta hau arau subsidiarioan sartzea.**

#### **UDALETXE ZAHARRA ETA APAIZ ETXEA**

---

Udaletxe Zaharra eta Apaiz-Etxea herrigunean dauden bi eraikin huts dira. Herritarrek, eta baita Udalak ere, **bertan gauzak egiteko potentzialitate handia ikusten** diete bie. Hau argi ikusi da prozesuaren hasieratik, **interes handia** piztu zuen eta bertan egingo luketen gauzen inguruan **proposamen asko, eta mota askotakoak**, egon baitira. Hala ere, nabari da **herritarrak** ere oso **kontziente** direla **bertan gauzak egiteko dauden zailtasunaz.**



**Apaiz-etxearen arazo nagusia eraikina obispadoarena izatea** da. Hau da, ez da Udalarena, eta beraz, oraingoz Udalak ez daukala gaitasunik bertan ezer egiteko. Gainera, hainbat saiakera egon izan dira eraikin eskuratzeko baina obispadoa ez dago oso prest, eta beraz, negoziazioa nahiko zaila da.

**Udaletxe Zaharraren** eraikina bai da Udalarena eta beraz, bertan Udalak nahiko lukeena egin dezake. Hala ere, herritarrak kontziente dira **udalaren egoera finantzieroz eta honek dakartzan zailtasunez**.

Beraz, **bi eraikin hauei bizia eman eta bertan egiteko proiektu proposamen mordo**a badago ere, herritarrak kontziente dira dauden zailtasunez eta **ez dute espero hau epe labur batean gauzatu ahal izango denik**. Hala ere, gai honi heldu, martxan jarri eta dauden aukerak aztertzeke gogoia dago.

Behin hau esanda, gai honen inguruan **hurrengo adostasunak** daude herritarren artean:

- **Bi espazioak publikoak eta herriaren beharrak asetzer**a bideratuak izatea nahi da.
- **Udaletxe zaharra ez da apaiz etxea lortzeko trukerako tresna** gisa erabiliko. Espazio honen erabileraren aldeko apustua egingo dugu.
- **Apaiz etxea ere publiko egitea nahi** dugu. Horretarako **beharrezkoa den prozesu bat bultzatu** nahi da. **Udaleko egituretatik ere ahal den presio handiena** egingo da, horretarako **hurrengo aukerak** aztertzea pentsatu da:
  - IT-a pasaraztea behartu
  - Udal plan orokorrean kontuan izan eta eraikuntzarako edota espazioaren erabilerarako mugak jartzea.
  - Diputazioarekin hitz egin eta beraien konplizitatea bilatu negoziaketa lanetan laguntzeko.

Prozesuan zehar **eraikin bakoitzean zer egin** edo zein proiektu aurrera eraman ere adostu da. Hau izan da atera dena eraikin bakoitzean, partaideen lehentasunen arabera:

## **UDALETXE ZAHARRA**

Hauek izan dira prozesuan zehar **Udaletxe Zaharreko eraikinean egiteko atera diren proposamenak**, 2. Saioko leheneste ariketan proposamenek jaso duten babesaren arabera ordenatuta:

- 1) **Alokairu sozialerako pisuak** egin (7 gomets)

- 2) **Erabilera anitzeko gune publikoa** herrian egiten diren ekintzak egiteko (5)
- 3) **Taberna edo Ostatu bat** (5)
- 4) **Hurtzaindegia bertara aldatzea** (4)
- 5) **Denda txiki bat** oinarrizko beharrei erantzuteko (1 + hurren eskaera)
- 6) **Gazteentzako aisialdirako espazio bat** (0)
- 7) **Aterpetxe bat** (0)

Udaletxe zaharrean, **gazteentzako aisialdiak eta aterpetxearen proposamenek ez dute babesik izan**, beraz, bi ekintza hauek udaletxe zaharrean ez egitea adostu da. Alde batetik, aterpetxea egitekotan apaizaren etxean egitea nahiago dute, bestetik, gazteen aisialdirako espazioa dela eta, udaletxean espazioa dagoela adierazi da, orain dela gutxi egindako proiektua da eta hauetan gazteentzako gauzak antolatu daitezke, herrian jada dauden espazioak erabiliz. Beraz, **hauek alde batera utzi eta beste ekintzak lehenetsi dira**.

**Tabernaren ideia**, berriz, lehen lerroan jarri dute, **oso garrantzitsua** iruditzen zaie, herriko bizitzarako ezinbestekoa. Hala ere, **gai honetan oso kontuan izan behar da jada gaur egun herrian badaudela bi taberna-jatetxe**, eta hortaz, beste baten beharrik ez dagoela (gainera hau kaltegarria litzake egon martxan dauden negozioentzat). Hala ere, **kezka dago** taberna hauek eramaten dituzten pertsonen adina ikusita hauen jubilazioa gertu ikusten delako, eta **hauek jubilatzean taberna ixteko aukerak egon daitezkelako**. Horregatik, guztiak ados egon dira **beste taberna bat martxan jarri aurretik egun martxan dauden tabernariekin hitz egin beharko litzatekeela etorkizunerako daukaten asmoaz**, eta **horren arabera erabaki** eraikin honetan taberna zerbitzua eskaintzeko aukera egokia den ala ez.

Bestalde, **taberna jarriko balitz**, hainbatek zerbitzu horri **oinarrizko produktuen dendaren proposamena** gehituko liokete. Modu honetan, bi aukerak uztartuko liratezke.

**Erabilera anitzeko gune publiko bat izatea ere garrantzitsua** da baina honetan posizionamendu ezberdinak egon dira, izan ere batzuek adierazi dute udaleko eraikin berrian erabiltzen ez diren espazioak daudela eta hauen erabilera birplanteatu beharko litzatekeela, aukera ezberdinak planteatuz.

**Alokairu sozialetako proposamena da botu gehien** lortu dituen, baina gauza positibo zein negatiboak identifikatu dira, alde batetik diru sarrera bat izan liteke, baina bestetik, erabilera pribatua litzateke, gutxi batzuen besterik ez.

**Aukera ezberdinak uztartzearen ideiak ere arrakasta** izan du, pisu bakoitzean gauza ezberdin bat garatzea.

Azkenik, **hautzaindegia bertara lekualdatzearen ideia** ere izan da hizpide, honek, ordea, **lanketa sakonago bat beharko** lukeela adierazi da.

#### **APAIZ ETXEA**

Hauek izan dira prozesuan zehar Apaiz-Etxearen eraikina publikoa izatea lortu ezker **bertan egiteko atera diren proposamenak**, 2. Saioko leheneste ariketan proposamenek jaso duten babesaren arabera ordenatuta:

- 1) **Aterpetxe eta merendero bat** (7 gomets)
- 2) **Erabilera anitzeko guneko publikoa** herrian egiten diren ekintzak egiteko. (4)
- 3) **Igerileku bat edo ur parke bat** kanpoaldean (3 + haurren eskaera)
- 4) **Hautzaindegi batera aldatzea** (3)
- 5) **Udalekuetarako toki bat** (2 + haurren eskaera)
- 6) **Gazteentzako aisialdirako espazio bat** (1)

Eraikin honetarako jaso diren proposamenetako **asko haien artean uztargarriak** dira. Hala ere, **aterpetxearen ideiak jaso du babes gehien**. Nabari da leku hau horrelako zerbait martxan jartzeko oso leku apropostzat jotzen dela. Aterpetxeaz gain, eta honekin **nahiko uztargarri, Udalekuetarako edo barnetegietarako toki bezala** ere egokia izan daiteke espazio hau. **Kanpoaldean igerileku edo ur parke moduko bat jartzea** ere atera da. Azken bi hauek herriko haurren esakerarekin bat datoz. **Haurren partetik espazio honekiko interes handia** dagoela nabari da, haientzako interesgarriak diren jarduerak bertan leku izan dezaketela uste dute.

Bi azterketak bateratuta hauek dira identifikatutako **ondorio orokorrak**:

- **Apaiz etxea izatearen aukerak, udaletxe zaharrean egingo denak baldintzatzen du**, askotan apaiz etxearen espazioa egokiagoa izan daitekeelako. Agian pentsatu behar da zer ezin den egin apaiz etxean udaletxe zaharrean egiteko.
- **Bi eraikin publiko izatearen ideia babestu da**, beraz, udaletxe zaharrenean erabilpena zehazten den bitartean, apaiz etxea gureganatzea helburu izango duen prozesua abiatu beharra dago, aurrez aipatutako ekintzak gauzatuz eta garatu daitezkeen beste bide batzuk aztertuz.

Bi eraikin hauentzako herritarren **proposamenak**, beraz, jada **mahai gainean** daude. Orain **horiek aurrera eraman ahal izateko aukerak eta moduak aztertu beharko ditu Udalak**. Hala ere, eraikin horietan egin beharreko hitz egitean ateratako **gogoeta bat** izan da eraikin

horietan zerbitzu publikoak eskaintzea, hau da, **espazio horien erabilera publikoa egitea**, udalarentzat honek suposatzen duen gastuarekin; **edo espazio horiek publiko izateari utzi gabe ere, negozio pribatuak bertan garatzeko aukera ematea**, honek Udalarentzat diru-sarrera bat eman dakioke. **Bi aukera horiek uztargarriak** izan daitezkeela ere ikusi da. Gauzak horrela, hauek izan dira 3. Saioan erabakitzeke egon diren **aukerak**:

- A) Alde batetik, **herriaren erabilera bideratutako proposamenak garatu** daitezke. Honek, udalarentzat gastu bat suposatuz.
- B) Bestetik, **udalaren jabetza den baina beste pertsona talde batek kudeatuko lukeen negozio bat antolatu**. Horretarako, udalak konponketak egiteko inbertsio bat egin beharko luke.
- C) **Bi elementuak uztartu** ditzakegu, alde batetik udalarentzat diru iturri izan daitekeen zerbait sortu eta aldi berean herriaren erabilerarako baliagarria izango den espazio bat eraiki.

**Herritarren gehiengoa, 31 pertsona**, hain zuzen, **C) aukeraren alde** azaldu da, hau da, aukerarik egokiena biak uztartzea litzatekela, beraz, **udalak eraikin hauen erabilera motari dagokionez erabilera pribatu eta publikoaren arteko oreka eta uztarketa bilatu beharko du**.

#### **UDALAREN KONPROMISUAK:**

Bi eraikin hauekiko **Udalak hartzen dituen konpromisuak** hauek dira:

- **Apaiz-etxea herriarena izateko moduak aztertu eta prozesua abiarazi.**
- **Udaletxe Zaharrea herritarreko proposaturikoak egin ahal izateko aukera eta finantziazioa bilatu.**
- Bi espazio hauetan herritarrak egin nahiko luketen proposamen zerrenda, lehenetsita, badago. **Zerbait egiterako orduan zerrenda hau kontuan izan.**
  - o **Tabernaren kasuan, herriko tabernariekin gaia jorratu**, beti ere, posible balitz, **hauek irekita mantentzearen alde eginez.**
- **Espazio hauek publikoak izatea**, hau da, **ez saltzea**. Erabilpena esku pribatuetan egotea ondo ikusten bada ere jabetza udalarena izatea.
- Erabilera motari dagokionez, **erabilera pribatua eta publikoa uztartzea** zaindu, oreka bilatu.

#### **ALTZAGARATERAKO BIDEA**

---

Altzagarateko bidearen egokitzapenaren gaiak **interes handia sortu** du. Hala ere, **gai konplexua** dela ere argi geratu da prozesuan zehar.

Hau izan da **hasiera batean** planteatu zena: **herritar gehienak Altzagaraterako bidea txukundu eta egokitzearen alde** zeudela. Egokitzapen honek herriko bizitzari onura egingo diolako (herritarrek lasai paseatzeko bideak irabaziko lituzketelako) eta herritik kanpoko jendearentzako ere “atraktibo turistikoa” bat izan daitekelako.

Egokitzapen honetan, **bidea txukuntzeaz gain, pasealarientzat beste hobekuntza batzuk ere egitea** ondo legoke:

- Bidea hauek **beste bide batzuekin lotu** (beste herri batzuetakoekin, haiekin elkarlanean), modu honetan ibilbide sare bat osatuz, ibilbide luzeagoak eta zirkularrak izanez.
- **Ibilbideak ondo markatu** (markak, kartelak, mapak...).
- Ibilbidean **panel informatiboak jarri**.

Hala ere **egokitzapen hau nola egin iritzi ezberdinak** daude. Hasiera batean, eztabaida gai nagusia bide horretan ibilgailu motordunen pasoa debekatu, arautu eta baimentzean egon da.

**Batzuk ibilbide horiek oinez edo bizikletan lasai paseatzeko** izan beharko liratzekela uste dute, horregatik, **ibilgailu motordunen pasoa arautzearen aldekoak** dira. Hala, pasabidea soilik larrialdietako ibilgailuei eta lursail jabeen baimentzearen aldekoak dira. Zalantza sortu da ehiza garaian ehiztariei sarbidea baimentzearen inguruan, beraz, hau ere aztertzeko litzateke.

**Beste batzuk** ordea, uste dute, bide horietan **autoen presentzia ez dela horren handia** (hau aztertzea interesgarria litzatekela), eta beraz, **autoen zirkulazioa debekatzea ez dute beharrezko ikusten**. Uste da, bidea egokitu ezkerreko lokatzarekin “jolastera” joaten direnen, eta hain justu bidea hondatzen dutenen presentzia, galaraziko zela.

Gainera, **debeku edo arautze horrek izango lituzkeen arazoak** mahai-gaineratu dituzte:

- **Kontrolatzeko arazoak:** nola kontrolatuko da hau? Dauden aukerak:
  - Sarbidea galarazten duten oztopo fisikoak jarri (posteak, vallak...).
  - Pasoaren debekuaren berri ematen duen kartela jarri eta hau hausten duenari zigorra ezarri (zigorrak jartzeko Ertzaintzarekin harremanetan inguru horietan hain presentzia handituz)
- **Nor bai eta nor ez erabakitzeak sor ditzaken gatazkak.**

Honen aurrean proposatzen dutena da **bidea egokitzea pasoa libre utziz eta honek arazoak sortuko balitu mugak jartzearen aukera orduan aztertzea.**

**Kontrara, hainbatek uste** dute, gaur egun bide horietan autoen presentzia txikia bada ere, horren arrazoia bidearen egoera kaxkarra dela eta **bidea konpontzeak auto gehiago erakarriko dituela.**

Aukera gisa **beste leku batzuetako ereduak ezagutu eta aztertzea komenigarria** litzatekela aipatu da. Horrelako gaien aurrean eman diren konponbideak aztertu eta Gaintzara moldatu litzatekena ikusteko.

Ikusi moduan, **ertz askoko gaia** da eta 3. Saiotan planteatutako posizionamendu ariketan garbi geratu zen **oraindik lanketa gehiago behar** duela. Izan ere, gai honen inguruan **iritzi eta posizio ezberdinak** daude, baina oraindik ere, horien inguruan **erabakiak hartzeko informazio gehiago falta** dela nabari da. Orokorrean zalantzak daude, **erabaki bakoitzak izan dezakeen inplikazioa ez baitago garbi**, erabaki "txiki" asko daude hartzeko eta erabaki horiek beste erabaki batzuk baldintzatzen dituztela argi geratu da. 3. Saioko eztabaidan hau plazaratu da eta ikusi da erabakia ez zegoela soilik bidea egokitzean ibilgailu motordunei bertako sarbidea debekatu, arautu edo baimentzean, hori baino konplexuagoa zela, eta beraz, honen inguruko informazio gehiago behar du jendeak gai honen inguruan erabakitzeko.

**Sortu diren galdera eta zalantzen** artean hauek:

- Merezki du konpontzeak gatazka sor badezake?
- Bidea nola egokitu? Egokitzapen minimo bat soilik oinezkoentzat ibiltzeko modukoa ala konponketa sakona eta autoak ere bertatik pasatzeko modukoa?
- Horren arabera, autoekin zer egingo dugu?
- Autoen sarbidea arautzen badugu zeren arabera? Zeintzuk bai, eta zeintzuk ez?
- Arautzea erabakitzen bada, nola kontrolatuko da?

Azkenean, hanbat bueltaren ostean, gaiari argi pixka bat eman nahian, **egokitzapena nolakoa izatea nahi zutenaren inguruan posizionatzeko eskatu** zitzaien. Hau izan zen atera zena: **22 pertsona egokitzapen minimo bat egitearen alde** (hau pentsa liteke bereziki honek autoen zirkulazioa ez handitzea ekarriko zuelako), **10 konponketa sakon bat egitearen alde**, hau da, autoak ere pasa ahal izateko moduko konponketa, eta 2 pertsonak zurian bozkatu dute.

Horregatik, **emaitza ikusita**, proposatzen da **konponketa "txikiak" izan ditzaken inplikazioa aztertzea**. Hau da, Udalak **konponketa txiki horiek zer diren, zer eragin izango luketen, ze**

**finantziazio behar dituen ondo aztertzea. Behin hau eginda, herritarrekin gai berriro mahai gainean jartzea.**

### **UDALREN KONPROMISOA:**

**Gai konplexua** dela, eta herritarrak oraindik gai honi irtenbide nola eman ez dakitela daudela kontziente izanik, **honako urratsak** emango ditu **Udalak gaian argi pixka bat emateko:**

- **Konponketa “txikiak” zeintzuk izan daitezkeen, nola egin daitezkeen eta horrek inplikaturiko duena aztertu.** Azterketa hau “terrenoaren” edo bidearen “maparen” gainean egin, hau da, ahalik eta zehaztasun handienarekin.
  - Hau 2021 urtean zehar egitera konprometitzen da.
- Konponketak egiteko **finantzazio iturriak bilatu.**
  - “Declaracion de zona degradada” prozesuaren aukera aztertu. Honek zer inplikatzen du? Zein baldintza?
  - Beste aukerak zeintzuk?
- **Informazio guzti hau herritarrekin partekatu**, hau da, zer egin daitekeen eta horrek etorkizunean izango duen eragina argi azalduz, eta **informazio zehatzaren gainean herritarrekin erabakiak hartu.**

Bitartean **bestelako hobekuntzak ere egiteko aukera aztertu:**

- **Inguruko herrietako udalekin** ibilbideak batzearen aukera esploratu.
- **Gipuzkoako Mendi Federazioarekin** ibilbideak diseinatu eta ibilbide horiek markatu eta seinaleztatzeko aukera aztertu (hau agian beste herriekin elkarlanean ere egin daiteke).
- Hau egiteko **finantzazio bideak aztertu** (Goitur, Basque Tour...).

### **KASKOAREN PEATONALIZAZIOA ETA APARKALEKUA**

---

**Kaskoaren peatonalizazioa** dela eta **argi ikusi da herritarrek ez dutela aukera hau egokitzen** jotzen. Ez da uste hau egiteko beharra dagoenik, eta gainera, hau egin ezkeron egin beharreko “zirkunbalazioa” egiteko lurren desjabetzeak egin beharko ziren eta hau ez dute ongi ikusten herritarrek.

Herrigunean zirkulazioa debekatzea ikusten ez bada ere, **herrigunean autoen presentzia txikitzea komenigarria** litzatekelakoan **plazan autoak aparkatzea galaraztearen aldekoak** dira

gehienak. Plazan autoak aparkatzea galaraziko balitz **plaza txukuntzea ere komenigarria** litzateke.

Herrigunean **aparkaleku falta jada arazo** bat da, eta plazako aparkalekuak kendu ezker arazo hori handiagoa litzateke. Horregatik, derrigorrezkoa litzateke **autoentzat parkin bat egitea**.

Parkin hau ezinbestean **herrigunetik gertu** egon beharko litzateke, **eta herriaren sarreran balitz hobeto** (modu honetan herrira datozenak herrigunera sartu gabe aparkatu ahalko lukete herriguneko zirkulazioa txikituz).

Parkin hau **kokatzeko aukera posibleen artean** hauek atera dira:

- **Kaletxiki tabernaren ondoko zelaia.**
- **Pilotalekuaren alboan.**

Autoentzat beste aparkaleku bat **egin bitartean herrigunean zehar dauden aparkalekuak** (ez soilik plazakoak, guztiak) **markatzea** komenigarria litzatekela adostu da. Honek “gaizki” aparkatu eta honek sorraraz ditzakeen aparkaleku falta edo zirkulazio arazoak galaraziko dituelakoan. Marka horiek egitean herriguneko ondarea ez hondatzeko **marka horiek “borragarria” den materialarekin egitea** ere adostu da.

Gai honetan eztabaida asko gabe **herritarren artean adostasuna** dagoela argi geratu da. Horren aurrean, orain, **Udalaren gain geratzen da hau nola egin aztertzea**.

### **UDALREN KONPROMISOAK:**

Gai honetan **aurrera begira hau egingo du Udalak:**

- Herrigunean **aparkaleku bat egiteko aukera aztertu**. Ekonomikoki hau egitea zaila izango dela jakitun izan arren, saiakera egingo da **hurrengo urratsak** eginez:
  - Aparkalekua egiteko **finantzazioa bilatu**.
  - Aparkalekuarentzat **leku aproposa pentsatu** eta bertako **jabeekin aparkalekua egiteko adostasuna lortzen saiatu**.
- Aparkaleku hori egiten den **bitartean herrigunean dauden aparkatzeko plaza guztiak markatu**.
  - Marka hauek ondarea zaintzen duten **material “borragarria”rekin** egin.
  - **Seinaleak jarri** autoak aparkatzera **pilotaleku inguruan dauden aparkalekuetara bideratzeko**.
- **Aparkalekua egiten denean plaza (adokinak) eta inguruak txukundu**.



## HERRITARREN BESTELAKO ESKAERAK:

---

Herritarrek, Udalak lantzeko proposatutakoaz gain, **hainbat proposamen propio** ere egin zituzten. Bereziki 1. Saioan herritarren artetik prozesuan lantzeko gaiak identifikatzeko asmoarekin egin zen ideia zaparrada dinamikaren bitartez jaso ziren.

Proposamen guzti hauek jaso ziren, baina **prozesuan lanketarako proposak ez zirelakoan jasoketa soilik** egin da. Proposamen hauetan **ez sakontzearen arrazoi nagusiak** hauek izan dira:

- **Hirigintzarekin zuzenean loturarik ez** zuten gaiak.
- Hirigintzako gaiak baina **oso eskaera zehatzak** zirenak, **lanketa gehiegiren behar gabe**.
- **Udalaren eskumenetik kanpo** geratzen direnak.

Horregatik, guzti hauek jaso eta sailkatu besterik ez dira egin. Hauek dira:

### HIRIGINTZAKO HOBEKUNTZAK:

Herritarrek **hirigintzari lotutako proposamen zehatzak** dituzte. Hauek dira:

- **Haur parkean hainbat hobekuntza proposamen:**
  - **Elementu gehiago sartu**
  - **Estalpe bat**
  - **Zuzenean bidera ateratzen den sarrera-irteera itxi.** Arriskutsua dela uste da.
  - Parkea **lekuz aldatu.**
  - **Haurren proposamenak:**
    - **Parkea berritu.** Berriaren **diseinuan parte hartu nahiko** lukete.
    - **Ur jolasak izatea** gustatuko litzaieke.
    - **Skate Park bat.**
- **Herrigunetik Otañeko jatetxe arte argiteria jarri.**
  - Baloratu eguzki plakekin egin daitekeen.
- **Herrigunean komun publiko bat jarri.**
- **Frontoi txikiko lurra konpontzea** (haurren proposamena)
- **HILERRIA LEKUALDATU:** Hau epe luzera (10 urte gutxienez) begirako proiektua dela jakitun hainbat herritar prozesu hau abiaraztearen aldekoak dira. Hala ere, hainbat zalantza agertu dira. Lekualdaketa hau egingo balitz ere, bertan zer egin iritzi ezberdinak daude.

### ZERBITZUAK HOBETU EDO JARRI:

Herritarren bizi kalitatea hobetzeko **hainbat zerbitzu jarri edo daudenetan hobekuntzak ezartzeko beharra** dago.

Batzuk **ez daude zuzenean Udalaren esku**, hala ere, **eskumena duen erakundearekin negoziatu edota presio egitea komeni** da. Presio honetan **Udalaren presioa babestu eta laguntzen herritarrek parte hartzeko moduak bilatu eta bultzatu** behar dira.

- **HAURTZAINDEGIA:** Herriko bizi kalitateari begira garrantzitsua den zerbitzu bat da. **Eskumena Partzuergoarena da baina Udalak zerbitzu hau irekita mantentzeako ahalegina egin behar** du. Ezin bada bermatu zerbitzu hori jasotzeko adin horietako haurrak ez daudelako aukera ezberdinak baloratu:

- o Behintzat **bermatu adin horietako haurrak daudenean berriro irekiko dela**. Hau da, **ez dela “betirako” itxiko**.
- o **Beste alternatiba batzuk baloratu:** adibidez, hurbileko herrietako haurrak ere zerbitzu horietan inskribatzeko aukera.

Hurtzaindegia ere lekualdatu espazio hobe batera (udaletxe zaharrera, adibidez).

- **GARRAIO PUBLIKOA:** Herri bizitzarako garrantzitsua den zerbitzu bat da. Zerbitzu honen **eskumena Gipuzkoako Foru Aldundiarena** da. Hala ere, **zerbitzu hau ahalik eta onena izateko presio egin behar du Udalak**. Presio honetan Udalaren presioa babestu eta laguntzen herritarrek parte hartzeko moduak bilatu eta bultzatu behar dira.

Garraio publikoan identifikatzen diren hobekuntzak edo **hobekuntza eskaera nagusiak** hauek dira:

- o **Ordutegia hobetu**. Ezartzen den ordutegia mantendu (ez etengabeko aldaketak) eta aldaketak badaude ondo komunikatu.
- o Herrira itzultzeko azken zerbitzua oso goiz da, **ordutegia luzatzen** saiatu.

- **TABERNA ETA OINARRIZKO LEHENGAIEN DENDA:** Garrantzitsuak ikusten dira herriarentzat bi zerbitzu hauek. **Udalak hauek bermatu beharko** lituzke: lehenik eta behin, **negozio pribatu bidez jada daudenak lagundu**, eta hau **posible ez bada, udalak zerbitzu hori eskaintzeko baldintzak sortu**.

- **MEDIKU ZERBITZUA:** Astean behin mediku zerbitzua Gaintzan jasotzeko aukera aztertu eta **negoziatu Osakidetzarekin**.

- **AISIALDI ESKAINTZA:** Aisialdi eskaintza zabaltzea nahi da, hala ere, sarri antolatzen denean parte hartzea nahiko txikia izan ohi da. **Udala gaia heltzeko prest eta gogotsu dagoen herritar talde batekin batera eskaintza antolatu.** Hauek dira **eskaintza hau hobetzeko egondako proposamenak:**
  - **Gazte lokalak** izatea aztertu.
  - **Haurrentzat ekintza / aisialdi eskaintza gehiago** egotea
  - **Umeentzako futbol talde bat**
  - **Apaizaren etxeari erabilera ematea eta udalekuan bertan egitea.** Denak bertara joan, bertan lo egin... . Asteburuetan ere gauza ezberdinak antolatuko lituzkete bertan.
  - Liburutegiko eraikinean dagoen pantaila haundia maizago erabili eta **zinetxikia egitea, pelikula gehiago proiektatzea.**
  
- **ALOKAIRU SOZIALAK:** Alokairu sozialeko **beste herri txiki batzuetako esperientziak ezagutu (adibidez Zerain) eta Gaintzan zer egin daitekeen aztertu.**

#### **UDALAREN KONPROMISOA:**

Eskaera hauen aurrean **Udala konprometitzen da eskaera hauek kontuan izan, eta ahal den neurrian, aurrera eramatea.** Hainbat proposamen epe laburrean egiteko modukoak dira. Beste batzuk, ordea, epe ertain-luzean egitekoak dira, hala ere, kontuan izango ditu. Epe laburrean egiteko modukoak ikusten dira hauek:

- Garraio publikoa hobetzeko presio egitea.
- Taberna-jatetxe zerbitzuen gaia bideratzea.
- Hurrekin batera haientzako aisialdi eskaintza hobetzea.

#### **HAURREN ESKAERAK**

---

Gaintzar bezala, **hurrek ere parte hartu dute prozesu** honetan. Haien parte-hartzea 1. Saiora mugatu zen, baina **hainbat eskaera eta proposamen** egin zituzten. Proposamen hauetako asko helduek egin dituztenak (edo antzekoak) izan dira, eta gai bakoitzaren atalean txertatuta daude. Hala ere, hurren eskaerari protagonismoa eman nahian, atal honetan ere propio jaso dira:

- **Beraien adinekoentzat ekintza / aisialdi eskaintza gehiago** egotea.
- Umeentzako **futbol talde bat.**

- **Apaizaren etxeari erabilera ematea eta udalekuan bertan egitea.** Denak bertara joan, bertan lo egin... . Asteburuetan ere gauza ezberdinak antolatuko lituzkete bertan.
- Liburutegiko eraikinean pantaila handi bat omen dago. Hau maizago erabili eta **zinetxikia egitea**, pelikula gehiago proiektatzea nahiko lukete.
- **Skate Park bat.**
- **Parkean** egotea gustatzen zaie ere baina hau **berrituko** lukete. Honen **diseinuan parte hartzeko gogoa** dute. Parkeak ur jolasak izatea gustatuko litzaieke.
- **Frontoi txikiko lurra** gaizki dago eta **aldatu** nahi dute.
- Ordizira joan behar izaten dute dena erostea eta hau ez zaie asko gustatzen, herrian denda bat izatea nahiko lukete.

### **UDALAREN KONPROMISOA:**

Haurrek eginiko proposamenei dagokionez **Udalak honako konpromisoak** hartu ditu, **eta hala helarazi zaie haiekin propio egin den saio batean:**

- **Liburutegian Zinetxikia** gehiagotan egitea.
- **Parkea berritzen denean haren diseinuan haien parte hartzea bermatzea.**
- Gurasoekin elkarlanean **haientzat aisialdi eskaintza handitzen saiatzea.**

### **UDALAREN KONPROMISO OROKORRA: jarraipena**

---

Parte-hartze prozesu hau abiatuta, eta prozesuan herritarren inplikazioa ikusita, **Udalak gai hauei jarraipena emateko konpromiso irmoa** hartzen du.

Hala ere, parte hartze dinamikari jarraikiz, **gai guzti hauei herritarrekin batera jarraipena emateko apustua ere egin nahi** du Udalak. Hala, gai hauen bueltan **herritarrekin urtean 2 saio egitea** proposatzen da. Bilera-saio hauetan **Udalak gai hauen bueltan egin dituen aurrerapenak eta jazo diren gertaerak** (aurrerapenak, bidean aurkitutako zailtasunak...) **partekatuko** ditu herritarrekin **eta hartu beharreko erabaki edo hurrengo urratsen gogoeta** egingo da.

Modu honetan, udalak **herritarren benetako parte hartzea sustatuko duen sistema bat martxan jartzeko saiakera** egin nahi du, herritarrak partaide egiteko, haien herriko gaiez eta erabakien jabe izateko. Aldi berean, saio hauen bitartez udalak herritarren babesa, zein laguntza eta inplikazioa ere bilatuko ditu.

## **HERRITARREN KONPROMESUA**

---

Behin Udalak prozesu honetan zehar landutako gaietan hartutako konpromisuak azalduta. **Herritarrei ere eskaera** egin nahi die: bakoitza bere interes eta gaitasunen arabera gai baten edo batzuen bueltan **udalari laguntzera konprometitzea**.

**Herritarren inplikazio izan dezaketen gaiak** hauek dira:

- **Baserrien inbentarioa egiten laguntzea.**
- **Alzagarateko bidearen erradiografia egiten laguntzea.**
- **Garraio publikoaren gaiarekin diputazioari presio egiten laguntzea.**
- **Aisialdi eskaintza hobetzen laguntzea.**
- **Auzolanean konpondu edo egin daitezkeen gauzak egitea.**
- **Gai hauei jarraipena emateko proposatzen den bileratan parte hartzea.**

## PROIEKTUA SUSTATU ETA FINANTZATU DUEN ERAKUNDEA

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ekonomia Sustapeneko,  
Turismoko eta Landa  
Ingurunekeo Departamentua



**Diputación Foral  
de Gipuzkoa**  
Departamento de Promoción  
Económica, Turismo  
y Medio Rural

## PROIEKTUAREN LIDERGOA ETA ONUDARUN NAGUSIA



## PROIEKTUA DINAMIZATU DUEN ERAKUNDEA

